

## I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

#### **18/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, kargak kitatzeari buruzkoa, zeinen xedea den hipoteka betearazpenaren ordezkordainean ematea erraztea**

Arabako Biltzar Nagusiek 2014ko ekainaren 18an egindako osoko bilkuran ondoko foru araua onetsi dute:

18/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa, kargak kitatzeari buruzkoa, zeinen xedea den hipoteka betearazpenaren ordezkordainean ematea erraztea.

#### ZIOEN AZALPENA

Martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuak, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienak, besteak beste, ohiko etxebizitza ordainean ematea arautzen du hipoteka betearazpenaren ordezkordatu neurri moduan.

Arautze horretan xedaturik dago, kasu jakinetan, ohiko etxebizitza ordainean ematea eska daitekeela, baldin eta baldintza jakin batzuk betetzen badira. Kasu horietan, erakundea nahitaez onartu behar du zordunak ondasun hipotekatua ematea erakundeari berari nahiz berak izendatutako hirugarren bati, eta horrela behin betikoz kitaturik geratuko da zorra.

Hala ere, esandako neurria ez da aplikatuko betearazpen prozeduran aurkitzen diren kasuetan, horietan enkantea iragarri baldin bada edo etxebizitzak geroagoko kargak baditu.

Foru arau honen xedea adierazi den ordainean ematea erraztea da, horretarako bete behar diren baldintzak finkatuz. Horri begira, xedatzen da Arabako Foru Aldundiak kitatu egingo dituela bera titularra duten zerga zorren ondorioz ohiko etxebizitzaren gainean dauden bere aldeko kargak, "Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea" jasotzen duen eranskinen 3. idatz zatian adierazten diren kasuetan. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean, dator.

Kargak kitatzeak ez dakar berekin Foru Aldundiak zerga zorrak kobratzeari uko egiten dionik.

#### **1. artikulua. Aplikazio eremua eta xedea**

Foru arau honetan xedatutakoa "Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea" jasotzen duen eranskinen 3. idatz zatian adierazten diren kasu eta zordunei aplikatuko zaie. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan dator, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean.

Zehazki, foru arau honek Arabako Foru Aldundiaren jokabidea zehaztu nahi du, ordainean ematekoa den ohiko etxebizitzaren gainean hipotekaz geroko kargak daudenean Foru Aldundia titularra duten zerga zorren ondorioz.

Foru arau honen ondorioetarako, zerga zorrak aipatzen direnean, horiek ez ezik zerga zigorretatik sortutakoak ere barne hartzen dira.

#### **2 artikulua. Kargak kitatzea**

Arabako Foru Aldundiak kitatu egingo ditu bera titularra duten zerga zorren ondorioz ohiko etxebizitzaren gainean dauden bere aldeko kargak, "Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka

bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea” jasotzen duen eranskineko 3. idatz zatian adierazten diren kasuetan. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan dator, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean.

### **3. artikulua. Baldintzak**

1. Aurreko artikuluan xedatutakoa aplikagarria izan dadin, beharrezkoa da ondoko baldintza hauek betetzea:

a) Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea” jasotzen duen eranskineko 3. idatz zatian adierazten diren zordunen ohiko etxebizitza izan behar da. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan dator, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitza zera izango da: azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarenak, 87. artikuluko 8. idatz zatian holakotzat definitzen duena.

b) Aurreko letran aipatzen diren zordunak ezin daitezke izan Arabako Lurralde Historikoan dagoen beste etxebizitza baten jabe, ez eta horren gaineko bizi arteko gozamen osorik eduki ere.

c) Ohiko etxebizitzaren gainean dagoen karga osatzen duen zerga zorraren zenbatekoa ez da 15.000 euro baino handiagoa izan behar. Salbuespenezko kasuetan, Arabako Foru Aldundiak ezeztatu ahal izango du baldintza hau bete beharra.

d) Aurreko a) letran adierazten diren zordunek dagokien eskabidea aurkeztu behar izango dute Arabako Foru Aldundian. Eskabide horretan, ordainketa egitasmo bat zehaztuko dute, bai ohiko etxebizitzaren gainean dagoen karga osatzen duen zerga zorra (hurrengo artikuluan adierazten diren kitatze gastuak barne direla), bai Arabako Foru Ogasunari ordaindu gabe dituen beste zor batzuk ordaintzeko, kasu batean nahiz bestean otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauan, Arabako zergen foru arau orokorrean, xedatutakoaren ondorioz dagozkien berandutze interesak barne hartuta. Baita ere, titular moduan dauzkaten ondasun eta eskubideen zerrenda ere aurkeztu beharko dute.

2. Ez da bidezkoa izango foru arau honen 2. artikuluan adierazten diren kargak kitatzea artikuluko horretan adierazitako kitapenarekin ere ez badira betetzen “Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea” jasotzen duen eranskineko 3. idatz zatian adierazten diren baldintzak. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan dator, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean.

### **4. artikulua. Kitapenaren gastuak**

Kitapenarekin loturik aurreko 2. artikuluan adierazten diren gastu guztiak foru arau honetako aurreko artikuluko 1. idatz zatiko a) letran adierazten diren zordunen kontura izango dira, baina Foru Aldundiak aurreratuko ditu eta ordainketa planean horien itzulketa sartuko du.

### **5. artikulua. Hipotekatutako ondasuna ematea onartu beharra duen erakundearentzako ondorioak**

Zordunak ondasun hipotekatua ematea onartzera beharturik dagoen erakundeak ezin izango du bere zerga zorren geroraterik edo ordainketa zatikatzerik eskatu, harik eta foru arau honetako 3. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran adierazten den pertsonak oso-osorik ordaintzen dituen arte Arabako Foru Aldundiak kitatutako kargari dagokion zerga zorra gehi kitapenaren ondoriozko gastuak eta dagozkien berandutze interesak.

**6. artikulua. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematea**

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena ematen zaio Arabako Foru Aldundia titularra duten zerga zorren ondorioz ohiko etxebizitzaren gainean dauden beraren aldeko kargak kitatzeko, "Ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka bermea duten zorren era bideragarrian berregituratzeko jardunbide egokien kodea" jasotzen duen eranskineko 3. idatz zatian adierazten diren kasuetan. Eranskin hori martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-Dekretuan dator, baliabiderik gabeko hipoteka zordunak babesteko premiazko neurrienean.

**AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Foru arau hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengoan jarriko da indarrean, eta aplikagarria izango zaie foru arau honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten egoera guztiei, bera indarrean jarri baino lehenago sortu badira ere.

Bigarrena. Gaitzea.

Arabako Foru Aldundia gaitu egiten da xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 18a

*Lehendakaria*

**JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA**